

# KANALAK

Langile eta bezeroaren arteko harremana egokia eta bezeroari moldatua izatea oso garrantzitsua dela uste dugu, hortaz, **bezeroekiko harreman zuzena** izatea erabaki dugu.

**JUBIZIRIK** negozio ideia ezagutzera emateko, alde batetik, gure ideiarekin zer-ikusia duten herrietako enpresa batzuekin harremanetan jarriko gara gure arteko aliantzak indartzeko. Horren ondorioz, baliteke batzuetan erakunde edo enpresa horien bitartez zerbitzua ematea, baina gu beti presente egonda eta **zuzeneko harremana** helarazten. Beste aldetik, herriko egoitzetan zein udaletxeetan **hitzaldiak** emateko prest egongo gara, jendeak gure proiektua ezagutzeko.

Gainera, gure zerbitzuak on-line plataforma baten bitartez eskainiko ditugu, **webgune bat** erabiliz bezeroekin harremanetan jarri ahal izango gara, (<https://jubizirik-1.jimdosite.com/>)(bertan **klikatuz** gure webgunean sartu zaitezke). Hala ere, adineko jendea teknologiarekin ez denez ondo moldatzen, lehen aipatu dugun moduan, hitzaldi informatiboak eskeiniko ditugu egoitzetan, herriko udaletan, osakidetzan... modu pertsonalago batean haiekin konektatzeko.

**Harreman pertsonala eta ez automatizatua** izan dadin, **telefono zenbaki** (690 35 28 83) zein webgunea eskuragarri egongo da egunero goizeko 8:30etatik, arratsaldeko 21:00ak arte, norbaitek zalantzak izatekotan argitu ahal izateko.

Ilido beretik jarraituz, gure informazioa helarazteko, ahoz-aho azalduz aparte, **teleomunikabideak**, **eskuorriak**, **telebista iragarkiak** (<https://www.youtube.com/watch?v=AEs7VaTs18k>) (bertan **klikatuz** gure lehen iragarkia ikusi dezakezue), **plataforma digitalak**, **sare-sozialak**... etab erabiliko ditugu. Haien artean, Instagram edo TikTok (@jubizirik). Adibidez, inkesta hau (<https://forms.gle/oH1XYJCYJ7Do8of58>)

betetzeko aukera izango dute bezero guztiek, modu honetan, haien nahiak edo beharrak hobeto ezagutzeko eta zerbitzua pertsonalatuagoa izateko.

Gure zerbitzua kontratatzea oso erraza izango da; telefonoz (690 35 28 83), internetez (<https://jubizirik-1.jimdosite.com/>) edota presentzialki kontratatu ahal izango baita. Eta ekintza egiteko interesa duen pertsonak zein pertsona horren senideek kontratatu dezake opari moduan.


Bestalde, gazteekin harremanetan jartzeko, maiz institutuetara, gaztelekuetara, udaletxeetara eta bestelakoetara joango gara, gazteenak jarduera eder honetan parte har dezaten konbentzitzen saiatzera eta pixkanaka-pixkanaka gazte gehiagok jarduera polit honetan parte hartzea lortuko dugu. Azken batean, **JUBIZIRIK 3. adinekoentzat zein gazteentzat** jarduera aberasgarria delako eta bi adin-taldeek bizipen oso politak izango dituztelako.

Gure enpresaren zerbitzuen barruan, printzipioz ez ditugunez produktuak salduko, ez dugu banaketa kanalik aipatuko, gure eskaintza presentziala izango baita.

Banatuko dugun eskuorria:



Gure Instagram kontua:



Iragarkia: <https://www.youtube.com/watch?v=AEs7VaTs18k> (klikatu)